



NAZIONALIZAZIOEN ERAGINA IMMIGRAZIOAN

42. *Begirada honetan, orain arte arreta handirik jarri ez zaion baina bai etorkinen kolektiboa kuantifikatu eta mugatzeko bai haien gizarte-egoera aztertzeke gero eta garrantzi handiagoa duen gai bat analizatu nahi dugu. Nazionalizazioez ari gara. Izan ere, auziak gero eta pisu handiagoa hartu du –logikoa dena bestalde, ezarri diren betekizunengatik–, eta gero eta gehiago dira espainiar nazionalitatea eskuratzen duten atzerritar jatorriko pertsonak; horiek, behin nazionalitatea lortuta, atzerritar biztanleriari buruzko estatistika-datuetatik desagertzen dira.*

1. Sarrera

Azken urteotan, nazionalizazioen auziak gero eta garrantzi handiagoa hartu du, batez ere etorkinen kolektiboa areago finkatu eta egonkortu delako. Jarraian ikusiko dugunez, espainiar nazionalitatea lortzeko betekizunak dira dinamika hori eragin dutenak.

Gehienetan, espainiar nazionalitatea eskuratzean, erregularrizazioa eta legezko estatusa lortzeko prozesua burutzen da. Horrez gain, gizarteratzeko eta egoera ekonomikoa hobetzeke aukerak areagotzen ditu nazionalitateak. Hain zuzen ere, eskura ditugun datuen arabera, espainiar nazionalitatea lortzen duten etorkinek egonkortasun handiagoa eta adierazle sozial eta ekonomiko hobeak dituzte, beste administrazio-egoera batean dauden taldeekin alderatuta.

Kontuan izan beharreko beste alderdi garrantzitsu bat da nazionalizazioek sortzen duten *distortsio* estatistikoa, espainiar nazionalitatea eskuratzen duen atzerritar jatorriko pertsona desagertu egiten baita atzerritar biztanleriari buruzko estatistiketatik. Auzi garrantzitsua da inondik ere, estatistikak desitxuratzeaz harago pentsatzekoa baita urteen joanarekin gero eta handiagoa izango dela urpean geratuko den iceberg-zatia –espainiar nazionalitatea duen atzerritar jatorriko populazioa–, ur-azalean –atzerritar populazioa– geratuko denaren aldean.

Nazionalizazioek estatistiketan edo kolektiboaren integrazioan izan dezaketen eraginaz gain, aipagarriak dira espainiar nazionalitatea eskuratzeko irizpideetan dauden aldeak, batik bat egonaldi-epeari dagokionez. Hala, eskaera egin aurreko denboran Espainian, legalki eta etenik gabe, hamar, bost edo bi urtez zein urtebetez bizi izana exijitzen da, kasuaren eta jatorrizko nazionalitatearen arabera.

Eskuarki hamar urteko legezko egonaldia exijitzen da. Errefuxiatu-estatusa duten pertsonentzat, epe hori bost urtera jaisten da. Hirugarrenik, nazionalitate jakin batzuetako pertsonen bi urteko egonaldia exijitzen zaie. Azken horien artean daude Latinoamerikako gehien-gehienak, Andorra, Filipinak, Ekuatore Ginea, Portugal edo sefardien komunitateko pertsonak. Azkenik, kasu zehatz batzuetan urtebete exijitzen da, esaterako espainiar lurraldean jaiok edo espainiarren zuzeneko ondorengoak direnentzat.

Betekizun horiek direla-eta, nazionalitatea lortzeko prozesuaren emaitzak oso desberdinak dira jatorriaren arabera, datuek erakutsiko dutenez. Latinoamerikako eta Magrebeko kolektiboaren artean –bi eta hamar urteko egonaldiak, hurrenez hurren–, aldea oso agerikoa da, eta aurrez aipatutako bi alderdietan eragiten du horrek: kolektiboaren integrazioan eta kuantifikazioan.

2. Nazionalizazioen bilakaera

Jarraian eskainiko ditugun datuetan urtez urte nazionalizatu diren pertsonen kopuruak jaso dira; beraz, metagarriak dira eta urtetik urterako hazkundeak ageri dute. EAE eta lurralde historikoetako datu bereziak 2003tik aurrera soilik ditugu.

Ikusten dugunez, 2003 eta 2009 artean bizilekua bertan izateagatik nazionalitatea lortu duten atzerritarrek 11.201 izan dira, eta Estatuan, berriz, 405.636 denbora-tarte berean. Horrenbestez, Estatu nazionalitateen %2,8 EAE izan

dira. 2010ean, Estatu nazionalitateen guztizko kopururik, %2,4 EAE izan ziren, eta beraz bi datuen artean nolabaiteko koherentzia dago.

1. grafikoan, ehuneko hori gainerako autonomia-erkidegoetakoekin alderatzen da. EAE zortzigarren lekuan dago, eta Madril eta Katalunia dira, alde handiz, nazionalizazio gehien metatzen diren lurraldeak; bien artean, 2003 eta 2009 artean gauzatutako nazionalizazioen %50.

1 taula. Nazionalizazioen bilakaera EAEn. 2003-2009

	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2003-2009
EAE	647	885	1.263	1.791	1.857	2.282	2.476	11.201
Araba	133	174	261	334	371	607	506	2.386
Gipuzkoa	171	205	382	460	523	669	728	3.138
Bizkaia	343	506	620	997	963	1.006	1.242	5.677
Espainia	26.556	38.335	42.829	62.339	71.810	84.170	79.597	405.636


Iturria: Lan eta Immigrazio Ministerioa

Hain zuzen ere, erroldatuta dagoen atzerritar jatorriko biztanleriari erreparatuz gero, ohartzen gara Madrilek eta Kataluniak guztizkoaren %39 baino gehixeago hartzen dutela, eta nazionalitateei dagokienez, berriz, %54,4. Aldea nabarmenagoa da Madrilen: atzerritar biztanleriaren %18,5 erakarri du, baina nazionalizatutakoaren %31,4. Aurkakoa gertatzen da Valentzian edo Andaluzian, non nazionalizatuen ehunekoa erroldatuena baino apalagoa baita. Autonomia-erkidego horietako etorkinen kolektiboaren barne-osaerari zor zaio hori. Hala, europar edota afrikar jatorriko kolektiboak nagusi diren erkidegoetan, nazionalizatuen ehunekoa txikiagoa da; alderantziz, latinoamerikar kolektiboa ugariagoa den lekuetan, handiagoa da nazionalizatutako pertsonen ehunekoa, Madrilen kasu.

Lurralde historikoen bilakaera aztertuz gero, ohartzen gara Bizkaiari burutu direla nazionalizazio gehien, zehazki 5.677, eta haren ondotik doaz Gipuzkoa (3.138) eta Araba (2.286). Urtez urteko bilakaerak erakusten digu 2006 arte joera goranzkoa zela argi eta garbi, 2007an hazkundera apaldu egin zela eta 2008an zein 2009an ostera berrindartu egin zela. Atentzioa ematen du 2009an Araban nazionalizatuen kopurua pixka bat jaitsi izana. Joera ezberdin horren atzean egon liteke lurralde horretan beste bietan baino latinoamerikar biztanle gutxiago egotea.

3. grafikoak xeheago erakusten du nazionalizatuen ehunekoa banaketa lurralde historikoen arabera, 2003tik 2009ra. Ehunekorik handiena Bizkaiak du, urterik gehiene-

1. grafiko. Nazionalizazioen bilakaera autonomia-erkidegoaren arabera. 2003-2009



Iturria: Eln eta Lan eta Immigrazio Ministerioa

2. taula. Biztanle atzerritarren eta nazionalizatuen urtetik urterako hazkundea. 2003-2010

		2003-2004	2004-2005	2005-2006	2006-2007	2007-2008	2008-2009	2009-2010
EAE	Erroldatuak	9.935	13.728	12.648	12.982	18.813	15.528	6.504
	Nazionalizatuak	647	885	1.263	1.791	1.857	2.282	2.476
Araba	Erroldatuak	1.613	3.083	1.716	2.535	3.448	3.181	2.189
	Nazionalizatuak	133	174	261	334	371	607	506
Gipuzkoa	Erroldatuak	3.354	3.304	3.754	3.750	6.895	4.924	1.590
	Nazionalizatuak	171	205	382	460	523	669	728
Bizkaia	Erroldatuak	4.968	7.341	7.178	6.697	8.470	7.423	2.725
	Nazionalizatuak	343	506	620	997	963	1.006	1.242


Iturria: Lan eta Immigrazio Ministerioa

an nazionalizatuen %50etik gora hartzeraino. Gipuzkoan, berriz, nazionalizatuen herenak bizi dira gutxi gorabehera, eta Araban bostetik bat nazionalizatzen da. Alde horien azalpena lurralde historiko bakoitzean bizi diren atzerritarren kopuruan datza.

2. taulan, erroldatuta eta nazionalizatuta dauden atzerritar biztanleen urtetik urterako hazkundea jaso da. Datuok aldekatuta ageri da 2008ra arte erroldatzeek nabarmen gora egin dutela, eta orduz geroztik mantsotu egin direla. Ordea,


nazionalitateen hazkundea egonkor mantendu da gaurdaino. Hasieran, bataren eta bestearen arteko aldea ez zen oso handia, baina 2008 eta 2009 artean 15.528 atzerritar erroldatu ziren, eta 2.282 nazionalizatu. 2009 eta 2010 artean, berriz, 6.504 atzerritar erroldatu ziren, eta 2.476 nazionalizatu. Joera horiei begira, pentsatzekoa da etorkizunean fluxuak geldotuko direla –erroldatzeak gutxi igoko dira– eta stockak egonkortu eta finkatuko direla –nazionalizazioak nabarmen igoko dira–.

2. grafikoa. Nazionalizazioen bilakaera EAEn lurralde historikoaren arabera. 2003-2009



Iturria: Lan eta Immigrazio Ministerioa

3. grafikoa. Nazionalizazioen banaketa lurralde historikoaren arabera (%). 2003-2009




Iturria: Lan eta Immigrazio Ministerioa

3. Nazionalitateak

Nazionalitateei dagokienez, azpimarragarria da EAEko gehien-gehienak latinoamerikar jatorriko biztanleek lortu dituztela, hala atzerritarren guztizkoarekiko kopuru handia direlako nola, batez ere, haientzat errazagoa delako nazionalitatea eskuratzea.

4. grafikoa. Nazionalitateen bilakaera EAEn jatorriaren arabera. 2004-2009



Iturria: Lan eta Immigrazio Ministerioa

Hala, latinoamerikar biztanleriaren ehunekoa urtez urte hazi da guztizkoarekiko, 2004ko %70etik 2009ko %90era.

Bestela esanda, gaur egun nazionalitatea lortzen duten atzerritar jatorriko hamar pertsonatik bederzti latinoamerikar jatorrikoak dira. Aldiz, gainerako jatorriek indarra eta pisua galdu dute ehunekoetan. Kasu deigarriena afrikarra da, 2004an nazionalizazioen guztizkoaren %14,7 izatetik 2009an %6 izatera jaitsi baitira. Beste kasu batzuetan bezala, bilakaera hori azaltzen duten faktoreak egonaldiak luzeagoa izan beharra eta, batez ere, betekizunetan dauden aldeak dira.

Lurralde historikoei begira –3. taula– ez da alde handirik antzeman, eta latinoamerikarren nazionalitateak dira, oraingoan ere, guztizkoaren gehiena hartzen dutenak: Bizkaian eta Gipuzkoan %90 baino gehixeago, eta Araban ia %89. Hain zuzen, jatorrien arabeko banaketan Bizkaia eta Gipuzkoa, alde batetik, eta Araba, bestetik, aski desberdinak diren arren, hori ez da nazionalitateei buruzko zenbakietan islatzen.

3. taula. Nazionalizazioak lurralde historikoaren eta jatorriaren arabera. 2009

	Araba	Gipuzkoa	Bizkaia
Europar Batasuna	3,0	3,3	0,9
Europaren gainerakoa	0,8	0,7	0,2
Afrika	6,5	5,1	6,3
Latinoamerika	88,9	90,5	90,1
Ipar Amerika	0,0	0,1	0,1
Asia	0,8	0,3	2,3
Ozeania	0,0	0	0,1
Herrigabeak/Ez da ageri	0,0	0	0

Iturria: Lan eta Immigrazio Ministerioa

4. Sexua

Sexuaren arabeko nazionalizazioei buruzko datuetan ere latinoamerikar kolektiboaren nagusitasuna eta eragina islatzen dira. Kolektibo horretan emakumeak ugariago dira, eta hori nazionalizazioei buruzko kopuruetan ageri da. Urte guztietan, nazionalitateen %60 eta %65 artean emakumeei eman zaizkie. 2009an, zehazki, guztizkoaren %61,7 izan ziren. Bizkaian eta Gipuzkoan ehunekoak EAEkoenen oso

antzekoak dira, Bizkaian are handiagoa –%63,2–, lurralde horretan latinoamerikar kolektiboaren pisua ere handiagoa delako. Araban, berriz, ehunekoak apalxeagoa da, %58,9koa 2009an, neurri handia batean latinoamerikar kolektiboak lurralde horretan pisu txikiagoa duelako eta gizonezko atzerritarren ehunekoak beste bi lurralde historikoetan baino handiagoa delako.

4. taula. Nazionalizazioen bilakaera EAEn sexuaren arabera. 2003-2009

		2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2003-2009
EAE	Gizonezkoak	36,6	40,2	38,6	38,9	40,0	38,7	35,4	38,2
	Emakumezkoak	63,4	59,7	61,4	60,9	60,0	61,3	64,5	61,7
Araba	Gizonezkoak	42,9	42,5	36,4	40,4	45,0	41,7	38,9	41,0
	Emakumezkoak	57,1	57,5	63,6	59,3	55,0	58,3	60,9	58,9
Gipuzkoa	Gizonezkoak	39,2	42,9	39,5	41,5	41,3	38,0	34,9	38,9
	Emakumezkoak	60,8	57,1	60,5	58,3	58,7	62,0	65,1	61,1
Bizkaia	Gizonezkoak	32,9	38,3	38,9	37,1	37,4	37,4	34,3	36,6
	Emakumezkoak	67,1	61,5	61,1	62,6	62,6	62,5	65,5	63,2

Iturria: Lan eta Immigrazio Ministerioa


5. Moduak

5. grafikoa ikus daitekeenez, 2004tik hona legalki bi urtez bizitzen egon izana da nazionalitatea lortzeko modu nagusia. Bide horrek gero eta pisu handiago du; 2004an guztizkoaren %55,5 izatetik 2009an %81,2 izateraino. Bestalde, espainiar batekin ezkondua nazionalizatzeko aukerak indarra galdu du aurreko urteekiko, eta gauza bera gertatzen da hamar urtez bizi izanagatik nazionalizatzearekin ere, 2004az geroztik arrazoi horrek azken urtean baitu ehunekoarik apalena. Honakoan ere, datuak azaltzeko faktore nagusia latinoamerikar kolektiboak EAEn duen pisua da, haiei eskatzen zaien baldintza askoz errazagoa baita betetzeko.

2009ko datuak Estatukoekin alderatuz gero zenbat ezberdintasun nabari dira, bi kasuetan ere modu nagusia, eta


gehiengoarena, bi urteko egonaldia bete izana den arren. Hala, bi urteko egonaldiaren ehunekoa txikixeagoa da Espainian (%75) EAEn baino (%81,2), eta, aldiz, gehiago dira, ehunekoetan, Espainian hamar urte baino gehiago bizitzen daramatelako edo Espainian jaio direlako nazionalitatea lortzen duten pertsonak. Ezberdintasun txiki horiek, neurri batean, migrazio-fluxuen ondorio dira; migrazioa lehenago heldu zen, oro har, Estatura, eta horregatik zenbait kolektibok, magrebtarrak kasu, errazagoa dute nazionalitatea lortzea. EAEn, berriz, migrazio-fluxuak duela gutxiagokoa dira, eta beraz bertan legalki bi urte baino gehiago bizi diren pertsonak bakarrik –latinoamerikarrek, gehienbat– eskura dezakete nazionalitatea.

5. grafikoa. Nazionalizazioen bilakaera EAEn moduaren arabera. 2004-2009



Iturria: Lan eta Immigrazio Ministerioa

6. grafikoa. Nazionalizazioa lortzeko modua EAEn eta Espainian. 2009



Iturria: Lan eta Immigrazio Ministerioa

6. Erroldatuak gehi nazionalizatuak

Lehen ere esan dugu nazionalizazioek nolabait atzerritar biztanleriari buruzko datuak desitxuratzen dituztela, hura lortzen duten pertsonak atzerritar kategorian galtzen dutelako, etorkinak izan arren. Horregatik, atal honetan bi multzoak –erroldatutako pertsonak gehi nazionalizatutakoak– batzea erabaki dugu, ahal den neurrian atzerritar jatorriko etorkinen kolektiboa zehaztasun handiagoz atzemateko.

Lehenik bi kopuruen batuketa egingo dugu gure erkidegoan bizi den kolektibo honen inguruko lehen hurbilketa egite aldera, beti ere jakinik jardunbide horrek gabezia teknikoak dituela. 2010. urtean, EAEn atzerritar jatorriko 150.570 pertsona egongo lirakeke, 30.596 Araban, 74.387 Bizkaian eta 45.587 Gipuzkoan.

5. taula. Atzerritar jatorriko biztanleria (errolda gehi nazionalizazioak) EAEn lurralde historikoaren arabera

	Erroldatuak	Nazionalizatuak	Guztira
EAE	139.369	11201	150.570
Araba	28.210	2386	30.596
Bizkaia	68.710	5677	74.387
Gipuzkoa	42.449	3138	45.587


Iturria: EIN eta Lan eta Immigrazio Ministerioa

6. taulan, EAEn erroldatutako atzerritarren ehunekoa jaso dugu, eta ondoren atzerritar jatorriko etorkinen tasaren kalkulua. Modu horretara, atzerritar jatorriko etorkinen egoerari buruzko irudi zehatzago bat –2004tik aurrerako datuak bakarrik ditugu– atera nahi dugu. Zehazki, 2010ean aipatu tasa %6,9 litzateke EAEn, atzerritarren tasa baino hiru hamarren gehiago. Aldea ez da handia, baina edonola ere nazionalizazioek estatistika-datuetan duten eraginaren berri ematen digu; gainera, pentsatzekoa da bi kopuruon arteko aldea gero eta handiagoa izango dela.

Azkenik, *nazionalizazio-tasa* bat egingo dugu, atzerritarren eta nazionalizatutako pertsonen kopuruak erlazionatuz; horrekin aztertu nahi dugu nazionalitatea lortzeko prozesu hori indartsuagoa edo apalagoa den autonomia-erkidegoaren arabera.

7. grafikoan ikus daitekeenez, nazionalizazio-tasan alde handiak daude, Espainian atzerritar biztanleriak duen banaketari erreparatuz. Tasarik altuena Nafarroak du –%15,8–, eta haren ondotik doaz Madril –%12– eta isurialde kantauriarreko zenbait autonomia-erkidego, hala nola Asturias

7. grafikoa. Nazionalizazio-tasa autonomia-erkidegoaren arabera. 2011



Iturria: Lan eta Immigrazio Ministerioa

–%10,9–, Kantabria –%9,7– eta Galizia –%9,5–. EAE, %7,7az, batez bestekoaren –%7,5– gainetik dago.

Hala, joera bitxi bat egiaztatzen da nazionalizazio-tasari dagokionez. Tasa hori altuagoa da etorkinen kopurua erlatiboki txikia eta latinoamerikar kolektiboa sendoa den autonomia-erkidegoetan. Alderantziz, etorkinen kopuru handiak dituzten baina horien artean beste jatorri batzuk, afrikarra esaterako, nagusi diren autonomia-erkidegoetan, nazionalizazio-tasa apalagoa da. Hori gertatzen da Murtzian –%3,2–, Valentzian –%3,6– edo Andaluzian –%4,1–. Salbuespena Madril da, atzerritarren ehunekoa handiaz gain latinoamerikar biztanleria ere ugaria baitu.

Datu horretatik ondorio interesgarri bat atera daiteke; izan ere, etorkinen kopurua erlatiboki baxua den autonomia-erkidegoetan nazionalizazio-tasa altuagoa da, eta horrek eragin positiboa du integrazioan eta gizarteratzean. Bestela esanda, integrazioarako bidea egokiagoa da, baldintza legal eta sozialei dagokienez bederen, aipatu autonomia-erkidegoetan, eta EAE horietako bat da.

6. taula. EAEko atzerritar jatorriko pertsonen bilakaeraren kalkulua, lurralde historikoaren arabera

		2004	2005	2006	2007	2008	2009	2010
EAE	Erroldatuen tasa	2,8	3,4	4	4,6	5,4	6,1	6,6
	Tasa birkalkulatua	2,8	3,5	4,1	4,8	5,7	6,5	6,9
Araba	Erroldatuen tasa	4,1	5,1	5,6	6,4	7,4	8,3	9
	Tasa birkalkulatua	4,1	5,2	5,8	6,6	7,8	8,9	9,6
Bizkaia	Erroldatuen tasa	2,6	3,2	3,8	4,4	5,1	5,7	6,2
	Tasa birkalkulatua	2,6	3,3	3,9	4,6	5,4	6,1	6,4
Gipuzkoa	Erroldatuen tasa	2,7	3,1	3,7	4,2	5,1	5,8	6,2
	Tasa birkalkulatua	2,7	3,2	3,8	4,4	5,4	6,1	6,4

Iturria: EIN eta Lan eta Immigrazio Ministerioa

7. Laburbilduz

Ikuspegi honetan egiaztatu denez, nazionalitatea lortzeko ezartzen diren betekizunek guztiz baldintzatzen dituzte nazionalizazioen kopurua eta ezaugarriak. Horrenbestez, begi bistako arrazoiak direla-eta, nazionalizazio gehien-gehienak latinoamerikar kolektiboaren baitan eman dira, eta lurraldean bi urtetik gora legalki bizi izanaren ondorioz. Era berean, kolektibo horretan emakumeen pisua handiagoa denez, nazionalitatea lortu dutenen artean gehiago dira emakumeak.

Gainerako kolektiboek, eta bereziki magrebtarrak zein Saharaz hegoaldekoak, zailtasun handiagoak dituzte nazionalitatea lortzeko; hamar urteko legezko egonaldia behar dute. Horregatik, atzerritar biztanleriari buruzko estatistikadatueta latinoamerikar kolektiboak berez duena baino pisu txikiago du, eta gero eta txikiagoa izango du gainera. Era berean, eta jada sarreran adierazi dugunez, nazionalitatea eskuratzeko aukeran dauden desberdintasunek eragina dute gizarteratzeari eta integrazioari lotutako hainbat alderditan.


BIBLIOGRAFIAKO NOBEDADEAK

Abriendo ventanas: infancia, adolescencia y familias inmigradas en situaciones de riesgo social
Fundació Pere Tarres e Unicef, 2011



Deskargatu

Young migrant women in secondary education
The Mediterranean Institute of Gender Studies (MIGS)




Deskargatu

¿Menores o adultos?: procedimientos para la determinación de la edad
Defensor del Pueblo, 2011



Deskargatu

Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren Atzerriko Etorkinen gaineko Inkesta: AEI 2010
Eusko Jaurlaritza, 2011



Deskargatu

Mesa de diálogo. Compartiendo experiencias para construir un modelo de salud universal y accesible: conclusiones
Médicos del Mundo, 2011



Deskargatu

Opiniones y actitudes de la población andaluza ante la inmigración (III): más allá del discurso funcionalista
Junta de Andalucía, 2011



Deskargatu

Auzokide berriak

EDEX, 2011

<http://auzokideberriak.net>

Ez gara ez bertokoak, ezta hangoak ere. Persona guztiak mundo bereko herritarrak gara. Gizaldia horrelakoa da kulturen nahasketa aberasgarria dela-eta. Mila ezaugarri desberdin ditugu, baina funtsezko ezaugarri komuna dugu: gure eskubideak.

Gai horien inguruan jarduten du "Auzokide berriak" ikuskizunak. Istorio honetan, hainbat kulturetako pertsonen arteko desberdintasunei aurre egiteko modu baikorra erakutsiko digu ume talde batek.

Auzokide berriak 11 eta 14 urte bitarteko nerabeen artean xenofobia eta arrazakeria saihesteko heziketa-proposamena da. Ekimen honen euskarri nagusia komiki bat da. Komikiaren orrialdeetan, neskek eta mutilek pertsonaia eta istorio desberdinak aurkituko dituzte, eta horiek guztiak hiritartasunaren balioei, migrazio-prozesuei eta kulturarteko bizikidetzari buruzko gogoeta egiteko gonbita egingo diete.




Ekimena Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailak eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak bultzatzen dute, eta heziketa-materialak EDEXek prestatu ditu, erakundeko bertako eta aipatutako sailtako kulturarteko hezkuntzaren arloko adituen parte-hartzearekin eta laguntzarekin.

International migration Outlook: 2011

Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Antolakundeak (ELGA)

Edizio honetan, nazioarteko migrazio-mugimenduen joera aztertzen da, eta, nagusiki, ELGAko kide diren herrialdeetan. Bereziki aztertzen dira langile kualifikatuen eta ez-kualifikatuen laneko migrazioak, aldi baterako migrazioak eta ikasketengatik migrazio-mugimenduak. Etorकिन enpresa-ekimenari buruzko kapitulu bat du (ekimenak lan-merkatuan duen eragina aztertzen da), bai eta Israelerako nazioarteko migrazioari buruzko kapitulu bat ere.



DEIALDIAK

Liburu eta jardunaldiaren aurkezpena:

Beste (elkar)bizitza ahalezkoa da

Bilbo, 2011ko azaroaren 11

CEAR-Euskadi

http://www.ikuspegi-inmigracion.net/documentos/convocatorias/Otra_Convivencia_eusk.pdf

Espainiako Nazioarteko Migrazioei buruzko Biltzarraren VII. edizioa

Bilbo, 2012ko apirilaren 11tik 13ra

UPV/EHU

Badago erabilgarri kongresuaren web orria.

www.congresomigraciones2012.com

Formación Básica en Inmigración y Género

Online ikastaroa

AOSLA-Gizalan

Ikastaro hau lan-orientabide eta gizarte-zerbitzuetako teknikariei zuzenduta dago, baita interesa duen orori ere. Generoaren ikuspuntutik immigrazioaren gaiari buruzko funtsezko heziketa ematea du helburu, emakume etorkinekin bitartekotza errazteko tresnak emanez.

www.aosla.org/ESCOLA/secciones/info_inmigenero_basico.htm



EAEko immigrazioaren inguruko informazio gehiago nahi izanez gero, kontsulta ezazu gure web orria: www.ikuspegi-inmigracion.net

Behatokiaren beste zerbitzu batzuk:
 – **Dokumentazio zentrua:** kontsulta zerbitzua eta liburutegi mailegua eskeintzen ditu.
 – **Informazio estatistikoa.**

Gurekin harremanetan jartzeko:

Tlf.: 94 601 82 75

Fax: 94 402 35 40

e-mail: info@ikuspegi-inmigracion.net

Postaz eta pertsonalki helbide honetan aurki gaitza-kezu:

Alameda Mazarredo 39, 4.C, 48009 Bilbo - Bizkaia

